

## Munduko herritar euskaldun baten memoriak

**G**IZON IKUSIEZINA. Duela gutxi, gizarte gaien inguruko solasaldi batean parte hartzen hasi nintzen gaztelerazko irrati batean. Ordotik, senide, lagun, ezagun erdaldun andanak guztiz harriturik esan dit irratiaren entzun nauela. Bakoitzak bere eufemismoa erabili du, baina oso argi dago finean zer esan didaten: “Kontxo! Egia da! Kazetaria zara! Euskaraz aritzen zinela esaten zenuenean ez genuen erabat sinesten”. Euskaraz ez jakiteagatik zer galtzen duten ikusarazi nahi diegu, baina nekeza da: haietzako ikusiezinak gara, eta, San Tomasek bezala, haiek ikusten dutena besterik ez dute sinesten.

**AMA-HIZKUNTZA VS. AMAREN HIZKUNTZA.** Seme-alabei jaiotzen zirenetik euskaraz egiten dieten ama euskaldun-berri batzuei elkarrizketa egin diet. Hori egitea nekeza ote den galdetu diot haietako bati: “Ateratsen sait natural. Es dut egin behar esfuerzo berezia”. Alberto Barandiaranen *Mundu txikia* liburuak ipuin itzel bezain aztoragarri batekin oroitu naiz. Aita euskaldun berriak euskaraz egiten dion haurraren istorioa kontatzen du. Umeak ez du batere gogoko aitak erabili ohi duen hizkuntza lau, idor, hotza. Eta ikaragarri maite du, aldiz, aitak gutxitan darabilen beste hizkuntza jostari, xamur, bero hori. Gaztelera da nire ama hizkuntza. Neure buruari galdetu diot egunen batean seme-alabarik badut euskaraz ala gaztelera egiten ote diodan. Neure buruak erantzun dit hori ezin dela galdetu ere egin. Hori tabua dela.

### BETI GERATUKO ZAIEN NAFARROA.

Bernardo Atxagari elkarrizketa egin diot. Gauza asko esan dizkit. Baina gehien errepikatu duena izan da nekatuta dagoela. Euskalduna izatea nekagarri zaiola. Eta idazle euskalduna izatea, are nekagarriagoa. Nolanahi ere, jarraian Nafarroara etortzeak berpizten duela gaineratu du. Biziberritu egiten duela non eta Iruñean norbaitek euskaraz elkarrizketa egiteak. Inoiz baino nekatuago sentitu naiz kazetari euskalduna izateaz. Kazetari euskaldun nafarra izateaz. Sikiera berpizteko Nafarroara joaterik edukiko banu... Baina ezin dut: Nafarroan nago.



MIKEL SAIZ

**MUNDUKO HERRITARRAK.** Ruper Ordorika handia entzun dut Barañaingo Auditoriumean, Euskalerrira Irratiaren eskutik kantuan. Abestietako batean Atxagaren bidetik jo du: “Inork ez zidan esan euskaldun izatea zein nekeza den, hobe nuela hautatzea munduko herritar izatea”. Munduko herritarrak... Askoz jota berrehun lagun hurbildu gara Auditoriumera, eta haietatik 199 euskaldunak gara. Munduko herritar sentitzen diren iruindar erdaldun askori Ruper nor den galdetuko bagenio, ile-apaintzaile *friki* samarra dela erantzunen liguke. Behin Zaragozatik etorritako lagun batekin edukitako solasaldiaz oroitu naiz. Hark: “Ez dakit zergatik tematzen zaretzen euskaldun izate horrekin. Ni munduko herritarra naiz”. Eta gure koadrilako mihigaizto samar batek: “Ni ere munduko herritarra naiz, munduko herritar euskalduna”.

**POST SCRIPTUM.** Anjel Lertxundi maisua haren blogean *post scriptum*ak idazten hasi zenetik, neuri ere halakoren bat idazteko gogo ikaragarria piztu zitzaidan. Azkenik, heldu zait horretarako aukera egokia.

✓ Bat: Iruñeko Karrikiri elkarte euskaltzaleko lagunek haien hilabetekarirako testua idazteko eskatu zidaten, niretzako euskalduna izatea zer den azalduz. Gaizkiulertu informatiko baten ondorioz, testua ez zen osorik argitaratu. Lanak osorik ikus dezan argia, zer egokiagoa ARGIA baino.

✓ Bi: euskaldun izatea niretzako zer den azalzen hasita, testutxo ezkor samarrak atera zitzaizkidan. Tonua aldatzekotan izan nintzen, bistan baita euskaldun izateak baduela niretzako gauza on asko. Baina azkenean bere horretan uztea erabaki nuen; izan ere, euskaldun izatea ezkortasunarekin, kezarekin, aldarrikapenarekin estuki loturik dago. Eta lotura laxatzen bada, kasu, euskalaren etorkizuna kolokan izan daiteke-eta.

✓ Hiru: aipatu ditudan erreferentziak Atxaga, Lertxundi, Barandiaran eta Ordorika. Zaharkitua eta misoginoa ematen dut. Hona hemen beste jite bateko lau erreferentzia, irudi hori aldatzeko ahalgin desesperatu moduan: Karmele Jaio, Eider Rodriguez, Edurne Elizondo eta The Foralettes. ■

